



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, HEZKUNTZA SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKOA

86/2024 IL – DDLCN
DNCG_DEC_0000/24_00

I. AURREKARIAK

2024ko urriaren 29ko dataz, TRAMITAGUNE aplikazioaren bitartez, Hezkuntza Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak izenburuan zehazten den dekretu-proiektuaren legezketasun-txostena igor dezala eskatu dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari.

Txosten-eskaerarekin batera, dekretu-proiektuaren testua (euskeraz eta gaztelaniaz) eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- Hasteko agindua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuaren izapideketa hastea erabakitzen duena, Hezkuntza sailburuak 2024ko uztailaren 26an sinatua (gaztelaniaz)
- Dekretu-proiektuaren testua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Agindua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuaren testua aldeztatik onesten duena, Hezkuntza sailburuak 2024ko irailaren 18an sinatua (gaztelaniaz)
- Justifikazio-memoria, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa, Araubide

Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak 2024ko irailaren 17an sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)

- Memoria, dekretu-proiektuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran izango duen arau-eraginaren azterketari buruzkoa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak 2024ko irailaren 17an izenpetua (gaztelaniaz)
- Txostena, dekretu-proiektuak enpresan izango duen eraginari buruzkoa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak 2024ko irailaren 17an sinatua (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Txostena, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, 2024ko urriaren 3an sinatua (gaztelaniaz)
- Txosten juridikoa, Hezkuntza Saileko Lege Aholkularitzarena, 2024ko urriaren 15ean sinatua (gaztelaniaz)
- Txosten juridikoa, Funtzio Publikoko Zuzendaritzarena, funtzio publikoko zuzendariak ikusonetsia (gaztelaniaz)
- Txostena, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, zuzendariak 2024ko urriaren 23an sinatua (euskeraz)
- Sailen ekarpenak (elebietan)
- Memoria ekonomikoa, Hezkuntza Saileko Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariak 2024ko urriaren 29an izenpetua (gaztelaniaz)
- Justifikazio-memoria osagarria, izapideketan jasotako txostenen ondorioz dekretu-proiektuaren testuan sartutako aldaketak azaltzeari buruzkoa, Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariak 2024ko urriaren 29an sinatua (gaztelaniaz)

II. LEGEZKOTASUN-AZTERKETA

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorri izortzen dugu:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 b artikulua)
- 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (9.1 i artikulua)
- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, xedapen orokorrak egiteko prozedurarena (22. artikulua)

I. Proiektuaren xedea, azalpena eta edukia

Legezketasun-azterketara aurkeztutako dekretu-proiektuaren onspenaren ondorioz, indargabetu egingo dira 71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, eta 39/2022 Dekretua, martxoaren 29koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.

Aurreko egiturarekin alderatuta, dekretu-proiektu honek Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sail berri bat sortzen du, eta haren eginkizunak 20/2024

Dekretuaren 17. artikuluan arautzen dira. Ondorio horietarako, 20/2024 Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen du desagertutako Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzako organo eta unitateek osatuko dutela Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila, zeina dekretuaren 17. artikuluan aipatzen den.

Aurreikuspen horren ondorioz, beharrezkoa izan da aurrez ezarritako egitura egokitzea, Unibertsitate Sailburuordetza alde batera utzita. Aurrekoa ikusita, proiektatzen den sail-egitura 18/2024 Dekretuan aipatutako funtzioen eta jardun-arloen arabera da, eta Saila hiru sailburuordetzatan egituratzen da. Sailburuordetza bakoitzak jardun-eremu jakin bat du eta, aldi berean, zuzendaritzetan egituratzen dira, gai espezifiko bakoitzaren arabera.

Era berean, Hezkuntza Sailari sektore publikoko hainbat erakunde atxikitzen zaizkio, bultzatu behar dituen politikak garatzeko funtsezko tresna direnak, eta proiektuaren edukia osatzen da Saileko organo periferikoen eskumen-deskribapenarekin.

Araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagozkien funtzioen gauzatzea artikulatu eta antolatzen du testuak, etapa eta maila guztiak barne, bai eta goi-mailako hezkuntza ere MECES 1 mailako unibertsitatez kanpoko goi-mailako titulazioei dagokienez, eta bizitza osoan zehar kualifikazioak eskuratzea edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak, lanbide-heziketaren arloko zuzendaritza, antolamendu eta plangintza-funtzioak betetzea, enplegurako Lanbide-heziketaren eta nekazaritza, arrantza eta nautikaren arloetako arautu gabeko Lanbide-heziketaren arloan eskumena duten sail eta erakundeekin lankidetzan. Era berean, lege eta erregelamenduen arabera, sailari atxikita edo haren mende dauden sektore publikoko erakundeak zuzentzea, eta legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak ere.

Zuzendaritzen eta sailburuordetzen nomenklaturari eta izenari buruzko aldaketak alde batera utzita -betiere erabilitako terminologia eguneratzeko eta

egungo errealitatera egokitzeko, eta egitura aurreko legegintzaldian Sailari atxikitako sektore publikoko hainbat organo sortzearen eta aldatzearen ondorioz izandako aldaketetara egokitzeko-, dekretu-proiektuak aldaketa garrantzitsu batzuk egiten ditu.

Lehenik eta behin, mendekotasun organiko eta funtzionalei dagokienez, adierazi behar da Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza organikoki eta funtzionalki zuzenean Hezkuntzako sailburuaren mende geratzen dela, eta hierarkikoki Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren mende egoteari uzten diola.

Formula hori historikoki erabili izan da Eusko Jaurlaritzako hainbat sailetan, eta helburu hau du: Saileko Langileen Antolaketa eta Kudeaketa, Aholkularitza Juridikoa eta Kontratazioa arloak, Saileko sailburuordetza guztien zeharkakoak eta komunak, zuzenean Sailaren mende egotea, arlo, sailburuordetza eta zuzendaritza guztiekin zuzeneko elkarrizketa erraztuz, sailburuordetza jakin batekiko mendekotasun organiko eta funtzionalik izan gabe, elkarrizketa hori zaildu ahal izateko.

Gainera, hasi berri den legegintzaldia oso garrantzitsua izango da erregelamendu-garapenari dagokionez; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legea berriki onartu ondoren, dekretuak eta aginduak garatu beharko dira hainbat arlotan eta gaitan, eta horiek garatzeko, zuzendaritza horren zeharkakotasuna sustatu nahi da, erregelamendu-garapen horien zuzendaritza katalizatzailer gisa.

Aldaketa horren ondorioz, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak partekatzen zituzten kontratazio-eremuari buruzko eginkizunak (Araubide Juridikoaren Zuzendaritza zen 1.000.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratueterako kontratazio-organoa, eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza, 1.000.000 eurotik 5.000.000 eurora bitarteko balioa duteneterako) Araubide

Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara pasatzen dira osorik, eta ezartzen da zuzendaritza hori izango dela kontratazio-organoa lizitazioaren oinarritzko aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia 5.000.000 eurotik beherakoa den espedienteetan. Sailburua kontratazio-organoa izango da zenbateko hori gainditzen duten espedienteetan. Mugaketa-formula hori ere ohikoa da, eta beste sail batzuetan erabili ohi da.

Mendekotasun organiko eta funtzionalen aldaketei dagokienez, adierazi behar da, era berean, aztergai dugun dekretu-proiektuak ere sartu duela aldaketa bat Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokionez. Zehazki, organikoki Hezkuntza Sailburuaren mende dagoela ezartzen da, baina funtzionalki Hezkuntza Politikako Sailburuordetzaren (lehengo Hezkuntza Sailburuordetza) eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren mende egongo da.

Aldaketa horren bidez, Hezkuntza Ikuskaritzak Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren mende dauden irakaskuntzei dagokienez ere egiten duen zeharkako lana sustatu eta sakondu nahi da, eta Sailburuordetzaren zuzendaritzekin koordinazio hobea lortu. Bigarrenik, eta zuzendaritza berriak sortzeari dagokionez, alde batetik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzan Zuzendaritza berri bat sortu da, eta aurrerantzean Ikaskuntza Berezien Zuzendaritza deituko da.

Zuzendaritza horrek honako eginkizun hauek hartuko ditu bere gain: Oinarritzko Lanbide Heziketako hasierako prestakuntza programatzea, ezartzea eta diseinatzea; araubide bereziko hainbat irakaskuntza (kirolekoak); helduentzako hezkuntza-programei buruzko politikak; eta bizialdi osoko ikaskuntzako ekintzak, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen manuekin bat etorritik.

Arlo eta gai horiek gero eta ugariagoak eta garrantzitsuagoak dira, gizartearen eredu demografiko berriak eskatzen ditu, eta berebiziko garrantzia dute lan-munduan pertsonak sartzeko eta birziklatzeko. Lanbide Heziketatik bultzada eta estaldura egokia eman nahi zaie, eta, horretarako, beharrezkoa da egitura

egokitzea, berezko norabidea izanik, modu aktiboan heldu ahal izateko. Beraz, beharrezkoa da politika horiek ikusaraztea eta baliabideak fokalizatzea etengabe eboluzionatzen ari den gizarte bati erantzuna emateko.

Bestalde, zuzendaritza berri bat sortu da desagertutako Hezkuntza Sailburuordetzan, orain Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza deitzen denean. Familiekiko eta Hezkuntza Komunitatearekiko Koordinaziorako zuzendaritza da. Hezkuntza-komunitatearen eta bertako eragileen ahalduntzea dela eta, ezinbestekoa da premiei arreta emateko esparru berri bat sortzea, kalitatezko hezkuntza-zerbitzu bat emateko, ikaslea ardatz duena, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako zerbitzuei, funtsezko tresna baitira hezkuntzarako funtsezko eskubidea bermatzeko.

Ildo horretan, Zuzendaritza berriari honako eginkizun hauek esleitzen zaizkio: Hezkuntza-eragileen arteko koordinazioa, familien orientazioa, beste administrazioekiko koordinazioa eta familiaren eta hezkuntza-eragileen parte-hartzea koordinatzea; eta, bereziki, bekak eta laguntzak kudeatzea, eta eskola-jantokiak eta eskola-garraioa kudeatzea.

Hezkuntza-komunitatea gero eta konplexuagoa eta anitzagoa da, eta erronkak ditu aurrean; horregatik, erakundeen arteko koordinazio handiagoa behar da, eta hezkuntza-komunitateko eragileekiko eta kideekiko hurbiltasun handiagoa. Zuzendaritza hori sortuta, hezkuntza-administrazioa herritarrengana hurbildu nahi da, hezkuntza-komunitatearen arazoei eta kezkei hobeto erantzun diezaion, eta hezkuntza-komunitateak erabakietan modu aktiboan parte hartu ahal izateko bideak ezarri.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Lege berriak azpimarratzen du, halaber, parte-hartze aktibo hori eta erakundeen arteko lankidetzaren beharra (bereziki, tokiko erakundeak). Zuzendaritza horrek erantzun hobea eman eta kanal eta mekanismo horiek koordinatu nahi ditu.

Era berean, jantokietako eta eskola-garraioko zerbitzuak kudeatzeko eginkizunak ere zuzendaritza horri helarazi zaizkio. Biak gai delikatuak dira, etorkizuneko eraldaketa bat aztertzeo fasean daudenak, eta hezkuntza-komunitatearen zein inplikaturako eragileen eskutik egin behar dira nahitaez. Bi eginkizun horiek norabide horretan txertatuz, modu aktiboan heldu nahi zaie eginkizun horiei, hezkuntzarako eskubidea behar bezala baliatzeko ezinbesteko zerbitzu osagarri gisa duten garrantzia emanez.

Azkenik, sailak izapidetzen dituen laguntza eta beken kudeaketa ere helarazten da. Ikasleak onartzeko prozesuarekin batera, familien, ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren artean interakzio gehien sortzen dituzten prozesuak biak izanik, antolaketa-zentzu osoa du horiek Zuzendaritzak kudeatzeak, adierazi den bezala, familiekiko eta Hezkuntza-komunitatearekiko interakzio-funtzioak esleituta baititu.

Era berean, lehen Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritzari zegozkion eginkizun horiek ekarrita, zuzendaritza hori lan-karga garrantzitsu batetik askatu nahi da, Hezkuntza-irakaskuntzen doakotasuna kontrolatzeari eta bermatzeari dagokionez esleitzen zaizkion eskumen berriei sakonago eta lasaiago heldu ahal izateko; izan ere, zuzendaritza horren eremuan kokatzen da horretarako sortu den administrazio-unitatea, hau da, Hezkuntzari buruzko Lege berria.

Hirugarrenik, nabarmendu behar da laugarren xedapen gehigarri bat sartu dela Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutuari buruz, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikulua bidez sortu baitzen. Xedapen gehigarri horren bidez, eta Erakundea sortzen duen agindu horretan xedatutakoarekin bat etorritik, Institutuaren helburuak ezartzen dira, bai eta titularrak izendatzeko modua ere. Titularrari esleitzen zaio Institutuaren osaera eta eginkizunak arautuko dituen dekretua garatzeko eginkizuna.

Laugarrenik, zenbait aldaketa nabarmendu behar dira zuzendaritzei esleitutako eginkizunei dagokienez.

Sortutako zuzendaritza berriei esleitutako eginkizunei eta kontratazio-arloko eginkizunei dagozkien eginkizunei dagokienez, aurreratutakoak alde batera utzita, honako aldaketa gehigarri hauek proposatzen dira:

a) Digitalizazioaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak, aurrerantzean, bere gain hartuko ditu Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko koordinazio-funtzioak, Adimen Artifizialari edo Konputazio Kuantikoari buruzko gaiak eta, azken batean, Lanbide Heziketaren esparruko digitalizazio-prozesuekin zerikusia dutenak. Eginkizun horiek Zuzendaritza honi esleituz, datozen urteetan berebiziko garrantzia izango duten gai horiei bultzada eman nahi zaie.

b) Euskara Zerbitzuak garatutako zereginei buruzko funtzioak, lehen Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzakoak zirenak, Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutu berrian sartuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legearen 90. artikuluan jasotako baldintzetan. Hori dela eta, kendu egin dira aurreko dekretuan zuzendaritza horretarako agertzen zirenetatik. Era berean, Euskara Zerbitzuko langileak organo horretan integratzen dira.

Bosgarrenik, eta funtzioen aldaketekin lotuta, oraingoan ez zuzendaritzen artean, baizik eta sailen artean, nabarmendu behar da Bigarren Xedapen Iragankorra sartzea aurreikusi dela. Horren arabera, 18 hilabeteko epea ezartzen da Hezkuntza Saileko goi-mailako arte-irakaskuntzen ezarpena eta garapena programatzeko eta diseinatzeko funtzioak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sail berrira eskualdatzeko.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen

dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 17.1 artikuluan ezarri du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sail berriaren eremuan sartzen direla Autonomia Estatututik ondorioztatzen diren eskumenak, goi-mailako hezkuntzari dagokionez (Hezkuntza Sailari esleitutakoak salbu), eta horrek esan nahi du goi-mailako hezkuntza horren eremuan sartzen diren arte-irakaskuntzak haren eskumen-esparruaren barruan geratzen direla. Hori da Musikeneren kasua – berariaz aipatzen da dekretuan –, baina beste ikastetxe batzuetakoa ere izan behar du, hala nola Dantzerti.

Funtzionamenduan dauden zentroak direnez, gaur egun Hezkuntza Sailaren mendeko langileak dituztenez eta sailaren egituraren txertatuta daudenez, ezin da berehalako aldaketarik egin. Hori dela eta, aldi baterako epe bat ezarri da, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren (Musikene) pareko eskumen-eremuan atxikitzeko beharrezkoak diren izapideak eta kudeaketak egiteko. 18 hilabeteko epea egokia izan daitekeela uste da, aldaketa horiek bat etor daitezen, ahal dela ikasturte berri baten amaieraren eta hasieraren artean.

Azkenik, izendapen- edo nomenklatura-aldaketa horiei dagokienez, horietako bat nabarmendu behar da. Aurreko legegintzaldian desagertutako Hezkuntza Saileko Unibertsitate Sailburuordetza jada Hezkuntza Sailaren egungo egiturakoa ez denez, eta, beraz, sailburuordetza horri esleitutako azterlanak haren aplikazio-eremuan sartzen ez direnez, egokitu egin behar da Hezkuntza Sailaren jarduera-eremuan sartzen diren ikasketak identifikatzeko modua.

- DEKRETU-PROIEKTUAREN TESTUAREN AZTERKETA

Testuaren azterketari gagozkiola, dekretu-proiektuaren egitura honako hau da: azalpen-zatia, lau kapitulu, 22 artikulua, lau xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta azken xedapena.

I. Kapituluak antolaketa orokorrari buruzkoa da eta 3 artikulutan banatuta dago: 1. artikulua, egitekoak eta eskumenak zehazten ditu; 2.ak Sailaren egitura orokorra ezartzen du; eta 3.ak Zuzendaritza Kontseilua arautzen du.

II. Kapituluak sailburua, kabinete eta komunikazio zuzendaritza eta araubide juridikoaren eta zerbitzuen zuzendaritzaren egitekoak zehazten ditu. 3 artikulutan banatuta dago (4.a, 5.a eta 6.a).

4. artikulua Sailburuari dagozkion egitekoak zehazten ditu. 5. artikulua Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzari dagozkionak, eta 6.ak Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkionak.

III. Kapituluak Saileko Sailburuordetzei eta Zuzendaritzei buruzkoa da. 15 artikulutan banatuta dago (7. artikulutik 21.era). 7. artikulua Sailburuordetzen egiteko orokorrak zehazten ditu; 8.ak Zuzendaritzenak, eta, hortik aurrerako artikuluek Sailburuordetza eta Zuzendaritza bakoitzaren egiteko zehatzak zehazten dituzte:

- Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza (9. artikulua)
- Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza (10. artikulua)
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza (11. artikulua)
- Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia Zuzendaritza (12. artikulua)
- Hezkuntza Politikako Sailburuordetza (13. artikulua)
- Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritza (14. artikulua)
- Aniztasunerako eta Inklusiorako Zuzendaritza (15. artikulua)
- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza (16. artikulua)
- Familiekin eta Hezkuntza Komunitatearekin Koordinatzeko Zuzendaritza (17. art.)
- Lanbide Heziketako Sailburuordetza (18. artikulua)
- Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza (19. artikulua)
- Digitalizazioaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza (20. artikulua)

- Ikaskuntza Berezien Zuzendaritza (21. artikulua)

Azkenik, IV. kapituluak, organo periferikoei buruzkoak, lurralde ordezkariak egitekoak zehazten ditu.

Horrez gain, azterketara aurkeztutako proiektuak lau xedapen gehigarri ditu: lehenengoak, ordezkapenen araubidea zehazten du; bigarrenak, kontratu txikiak kontratatzeaz, baimentzeaz eta onartzeaz arduratuko diren organoak identifikatzen ditu; hirugarrenak, bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguak; eta laugarrenak Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren araubidea zehazten du.

Lehenengo xedapen iragankorrak, berriz, izapidetzen ari diren espedienteak aplikagarri izango zaien araubidea zehazten du, eta bigarrenak, goi-mailako irakaskuntzen arloa Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sail berriari eskualdatzeko egin behar diren izapideak.

Bestalde, xedapen indargabetzaileak honako hauek indargabetzen ditu: 71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2022 Dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua, eta dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren bestelako erregelamenduzko xedapenak.

Amaitzeko, azken xedapenak ezartzen du dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Azken xedapen horri dagokionez, esan behar dugu legezkotasun-azterketara aurkeztutako testuan honela idatzita jasotzen dela: “AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA”.

Aldiz, azken xedapena bakarra izanik, ez deritzogu zuzen “azken xedapenetako LEHENENGOA” idazteari, ez baitago besterik. Beraz, AZKEN XEDAPENA

idaztea iradokitzen dugu.

Gaztelaniazko bertsioan ere beste horrenbeste gertatzen da. Azterketara aurkeztutako bertsioan “DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA” jasotzen da, baina, euskerazko idazkera aldatzeko eman ditugun arrazoi berberengatik, honela idaztea iradokitzen dugu: DISPOSICIÓN FINAL.

Bestalde, dekretu-proiektuaren euskarazko bertsioaren 22.1 artikuluan hauxe esaten da:

“Hezkuntzako sailburuaren mendetasun organikoaren eta hari atxikitako sailburuorde eta zuzendaritza bakoitzaren mendetasun funtzionalaren **pean**, Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bat egongo da lurralde historiko bakoitzean, lurralde-ordezkarri batek gidatuta; egiteko hauek izango ditu”.

Euskaltzaindiak, ordea, idatzizko euskara batuan “mende” erabiltzea hobesten du, hain zuzen ere testuaren 20.2 artikuluan idatzi den bezalaxe:

“Aurreko paragrafoan adierazitako gaietan, Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzak Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren **mende** egongo dira funtzionalki”.

Hortaz, 22.1 artikulua kasuan ere, mende idaztea gomendatzen dugu, pean atzizkiaren ordez.

Azkenik, egoki deritzogu Sailaren **Organo Estatistiko Bereziari** buruzko aipamen bat egiteari; izan ere, dekretu-proiektuaren testuan ez da inon jasotzen organo estatistiko hori, eta Jaurlaritzako Sailen Estatistikarako Organo Bereziak (EOB) arautzen dituen ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak aurreikusi egiten du Sail bakoitzsk bere Organo Estatistiko Berezia sortu beharko duela.

Hala, dekretu horren 1.2 artikulua zehazten du organo estatistikoa **dekretu** bidez sortu beharko dela eta Sail bakoitzak organo estatistiko bakarra izango duela. Era berean, 5. artikulua xedatzen du organo unipertsonalak izango

direla EOBak, goi-mailako kargudunaren artezko agintaritzapean edo sailean behar hainbateko eskuduntzak izan ditzan edo koordinakuntza-egitekoak bete ditzan beste organuren baten mende.

Beraz, dekretu horretan agindutakoa betetze aldera, eta kontuan izanik Sail hori osatuko duten organoak sortu, kendu eta/edo berrantolatu egingo dituen dekretu-proiektu baten aurrean gaudela (egitura organikoari buruzko dekretua), ez dugu oztoporik ikusten Dekretu honen bidez Organo Estatistiko Berezi hori sortzeko, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.2 artikulua xedatutako esparruaren baitan, zeinak sailburuen esku uzten duen Lehendakariari Sailen egitura eta antolaketa proposatzea, Lehendakariak bere onespena eman diezaien.

Horretarako bide egoki bat, dekretu-proiektuari xedapen gahigarri bat gehitzea izan liteke, honako idazkerarekin:

“XX xedapen gahigarria: Hezkuntza Sailaren Organo Estatistiko Berezia Sortzea”

Xedapenaren edukiari buruz, berriz, komenigarria izango litzateke Jaurlaritzako Sailen Estatistikako Organo Bereziak arautzen dituen 180/1993 Dekretuan funtsezko edukia jasotzea.

Beti erre, kontu izanik ekainaren 22ko 180/1993 Dekretuak aurreikusi egiten dituen izapidetze erantsiak (Euskal Estatistika Batzordea derrigorrezko txostena eta memoria justificatiboa) Dekretu honen onarpenerako jarraitu beharko liratekeela, ere, kasu horretan.

II. Izapidetzea

Aztergai dugun dekretu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean jasotako manuzko izapideak bete beharko ditu, eta betetzen ditu.

Azterketara igorritako agindu-proiektuaren testuak bete egiten du Xedapen

Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 10.4 eta 14.5 artikuluetan hizkuntza ofizialen berdintasunaren erregulazio-printzipioari buruz eta testua bi hizkuntza ofizialetan idazteko betebeharrari buruz ezarritakoa; izan ere, testua bi hizkuntzetan idatzi da hasieratik, aldeztatik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen, eta ondorengo faseetan ere ele bietan landu da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, aldi berean.

Eta lojiko da holan izatea; izan ere, bi testuen segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak dira horiek, kontuan izanda testuaren bi bertsio linguistikoak direla ofizialak eta benetakoak. Horrela jokatuta, prozeduraren bermeak bi bertsiook dituzte, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridikoa handiagoa izatea dakar.

Horrek aukera eman digu bi bertsioen gaineko legezkontasun-azterketa egiteko, eta, horri esker, hainbat zuzenketa iradoki ahal izan ditugu euskerazko zein gaztelaniazko bertsioen idazkerari dagokionez.

III. Ondorioa

Beraz, adierazitako ohartarazpenak eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezkontasun-azterketara aurkeztu diguten dekretu-proiektuari.

Hori da igortzen dudana txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen mende jartzen dut.